

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua behar bezala aurrera eramateko eta funtziona dezan, hainbat eragile, faktore eta funtsezko sozietaterekin harremanetan jarri beharko gara.

Hasteko, herri inguruko erakundeekin jardun beharko dugu, hau da, Zumaia-Deba arteko Udaletxeak eta Gipuzkoako Ingurumeneko Foru Aldundia. Hauei esker, gure zerbitzuaren berri emateaz gain, abantailak (kamioia eta lokala) eta diru-laguntzak izan ditzakegu. Deba-Zumaia arteko Udalekin hasiera batetik harreman konstante bat mantenduko dugu, logistika, legeak, kokapena, jasotze egunak eta materialen berri izan beharko baitugu.

Itsasoko harrietan gelditzen diren hondakinak jasotzeko, helikopteroaz gain, zabor bilketa bakoitzean espero den hondakin bolumenaren arabera kamioi desberdinak alokatuko ditugu. Hauei esker, zaborra erraz garraiatzeko aukera izango dugu itsaslabarretatik zabortegietara. Horregatik, proiektua aurrera eramateko funtsezko beste eragileetako bat garraio enpresa izango da.

Boluntarioak behar ditugunez, elkarre desberdinetara joko dugu. Adibidez, *Eguzki* talde ekologistarekin kontaktuan jarriko gara zabor bilketak egiten esperientzia dutelako eta lagungarriak izango direlako antolakuntza eta pertsonen erakartze lanetan.

Gainera, *EkoWave*-ek Gipuzkoa eta inguruko herrietako aldizkari, telebista eta irratiekin harreman estua izango du. Hain zuzen, komunikazioaren hedabideari begira, ezagutarazteko ezinbestekoak bilakatu daitezken sozietateak dira. Izan ere, proiektua berritzailea denez, eskeintzen dugun zerbitzuari buruz inguruan berri ematea komenigarria izango da boluntarioak erakartzeko.